



Sentitu



# Denbora-kapsula

**Zein adinetarako proposatzen da:** 8-12, 12-14 eta 14-16 urtekoentzat pentsatutako jarduera, adin bakoitzera egokituz. Proposamen irekia egiten dugu, jarduera moldaeraza izan dadin.

## Jardueraren helburua:

Koronabirusak sortutako egoerak nola eragiten digun hausnartzera gonbidatzea. Nola sentiarazten gaituen aztertzea eta gure bizitzetan zer ari den aldatzen ikustea, bai aldi baterako bai betiko. Egokitzeko dugun gaitasunaz ohartzea.

**Materiala eta denbora:** Jarduerarako erabiliko dugun denbora-tartea garapenaren arabera izango da. Gutxienez bi ordu beharko ditugu, baina luzeago ere har dezake, adibidez, erabakitzen badugu etxean ere lan egitea familiekin, edo benetako kapsula bat sortzea, gero lurperatzeko edo lekuren batean ezkutatzeko.

## Jardueraren garapena:

Taldeari galdetzen diogu ea *denbora-kapsula* bat zer den dakiten. Definizio orokor bat hau izan daiteke:

- *Denbora-kapsula* bat, orainaldiko mezuak eta gailuak gordetzeko edukiontzia hauskaitz bat da, etorkizun urruneko pertsonaiei jakinarazteko nolakoa zen bizitza kapsula sortu zen garaian. Gogoratzea merezi duten gauzak gertatzen direla uste dugun une

garrantzitsuetan egin ohi dira.

- Une historiko bat bigi dugu: etorkizunean liburuetan agertuko da eta eskoletan ikasiko egingo dute. *“Mundua apur bat gelditzera behartu gintuzten hilabeteak, gero jarraitu ahal izateko”*.
- Hilabete hauek oso desberdinak izaten ari dira, orain arte bizitakoarekin alderatuta. Kontatzea merezi duela uste dugu, etorkizunean zer gertatu zen jakin dezaten. Horretarako, denbora-kapsula bat egingo dugu.

## Kapsulak benetakoak edo bertualak izan daitezke:

- Kapsula bertual bat bada, dinamika hau hausnarketa sustatzeko erabil dezakegu. Sortutako galderen bitartez sustatuko dugu eta testigantza bat edo gehiago graba ditzakegu, irudiak, bideoak edo bestelako fitxategiak ere sartzeko aukerarekin.
- Jarduera amaitzeko hainbat aukera daude. *Pen drive* batean gorde daiteke dena eta gero lekuren batean lurperatu, edo fitxategiak mezu elektronikoki bati erantsi ahal dizkiogu. Irakasleak gero posta konfiguratu dezake urte jakin batean ikasle guztiei automatikoki bidaltzeko. Adinaren eta gaitasun teknikoaren arabera, beste aukera batzuk ere egon daitezke, hala nola telefonorako aplikazioak, software espeziifikoa,...



# sentitu / denbora-kapsula

Benetako kapsula bat bada:

- Edukiontzia egoki bat aukeratu eta prestatu behar da. Mota askotakoak izan daitezke, hala nola plastikozko edo metalezko kutxak, tuperrak, plastikozko edo beirazko botilak eta abar. Garrantzitsua da ondo ixtea, erraz honda daitekeen gauzarik ez sartzea eta irekitzeko gutxi-gorabeherako data bat jartzea kanpoan.
- Prestatu sartu beharreko mezuak eta objektuak.
- Hautatu kapsula uzteko lekua, eta utzi bertan.
- Ideia ona izan daiteke denon argazkiak ateratzea eta fitxategi digital bat sortzea, kapsulan sartzeko edo gordeta gera dadin kapsula galdu edo hondatzen bada.

Etorkizunera bidaliko dugun mezuaren edukia: mezuaren helburuaren ildotik, banaka edo talde txikietan lan egiten saiatuko gara, baina bat etortzeko mekanismoak bilatu beharko ditugu kapsulan zer sartzen den erabakitzeko. Erabiliko dugun metodoa taldean dagoen dinamikaren arabera izango da, eta gogoan izango dugu beti egungo garaia behatu eta hausnartu nahi dugula, eta gure begiradari perspektiba pixka bat eman nahi diogula.

Irakasleek item batzuk edo besteak hautatuko dituzte beren irizpidearen arabera eta kapsula digitala edo benetakoa den kontuan hartuta. Irakasleek egoki iruditzen zaien moduan banatuko dute lana. Horretarako, talde handian lantzeko zein item diren

interesgarrien eta banaka edo talde txikietan zeintzuk landu daitezkeen baloratuko dute. Itemak zerrendekin edo deskribapenekin azaltzeaz gain, zerbait adierazteko balio dezaketen objektuak ere sar ditzakegu.

## **ITEMAK:**

Portada eta azalpen labur bat sortu behar ditugu, hori baita kutxa irekiko duen pertsonak aurkituko duen lehen gauza.

Item honetaz arduratzen den taldeak edo pertsonak bizitzan ari garen unea zergatik den historikoa eta zergatik merezi duen denbora-kapsula bat egitea azaldu beharko du.

Interesgarria izan daiteke ikasle guztien argazki bat ateratzea kutxan gordetzeko.

Garai honetako albiste adierazgarriren bat sartu nahi badugu, alde zuretik eskatu ahal diegu ikasleei hautatzeko.

Itxialdia eramangarriago egiten lagundu diguten abesti batzuk aukeratu ditzakegu. Ziur urte batzuk barru deigarria suertatuko zaigula aukeraketa.

Koronabirusa agertu aurreko hilabeteekin alderatuta, horien falta sumatzen dugun gauzen zerranda labur bat egin dezakegu. Une interesgarria izan daiteke konturatzeko gauza batzuk galtzen ditugunean soilik baloratzen ditugula. Denon artean elementu horiek ordeztzeko moduak bilatzeko ere aprobeitza dezakegu (ezker ez du besarkada edo



# sentitu / denbora-kapsula

musu bat ordezkaturko, baina keinu edo agur bereziak bila ditzakegu, adibidez).

Horien falta sumatzen ez dugun gauzekin beste zerrenda bat ere egin dezakegu. Apur bat kostaturko zaigu, baina aldatu diren gauzei buruz hausnartu dezakegu, adibidez zeren hutsunea sumaturko gurela uste genuen eta orain konturatzen gara ez dela horrela.

Zerrenda bat hilabete hauetako oroitzapen alaiekin eta beste bat oroitzapen tristeekin.

Beste zerrenda batean, garai honetan geure buruari buruz ikasi dugun zerbait idatz dezakegu.

Harro sentiarazten gaituen zerbait. Harritu egin gara espero ez genuen zerbait egiteko edo egiteari uzteko gai garelako? Zaila suertatzen bazaigu, asko maite gaituen norbaitengan pentsa dezakegu eta imajinatu pertsona horrek gutun bat idazten digula esateko gurekin oso harro dagoela garai zail honetan lortu dugunarengatik. Zer esango luke gutun horrek?

Hau dena atzean uzten dugunean mantentzea gustaturko litzaigukeen ohitura berrien zerrenda.

Norbait 10 urte barru kapsula irekitzen badu, ordurako desberdin izatea espero dugun gauzen zerrenda.

Urte asko barru norbaitek kapsula ireki baino lehen egin nahiko genituzkeen gauzen zerrenda.

